



# Itsasoko eta kostako txostena

## Informe marino-costero



<b>1. Sarrera</b>	<b>3</b>
<b>2. Metodologia</b>	<b>5</b>
2.1. Klima-aldaketaren adierazleen denbora-serieen analisisa itsas ingurunean eta kostaldean	7
2.2. Joerak klima-aldaketari edo beste faktore batzuei egozteko atribuzio-analisisa	8
<b>3. Klima-aldaketaren adierazleen denbora-serieen analisisa</b>	<b>9</b>
3.1. Itsasoko adierazle fisiko-kimikoak	9
3.1.1. Itsasoko tenperatura	9
3.1.2. Gazitasuna	11
3.1.3. Termoklina, estratifikazioa eta neguko nahaste-geruza	12
3.1.4. Oxigenoa	16
3.1.5. Mantenugai ez-organiko disolbatuak	17
3.1.6. Itsas maila	18
3.1.7. Olatuak	20
3.2. Adierazle atmosferiko eta hidrologikoak	23
3.3. Kostaldeko higaduraren adierazle geomorfologikoak	23
3.3.1. Mareaz gaindiko eta marearteko eremua	24
3.3.2. Hondartzaren batez besteko zabalera	25
3.4. Adierazle biologikoak eta itsas ekosistemarenak	26
3.4.1. Fitoplanktona	27
3.4.2. Makroalgak eta substratu gogorreko beste komunitate batzuk	31
3.4.3. Substratu biguneko makroornogabe bentikoak	31
3.4.4. Arrainak	32
3.5. Adierazle berriak	35
<b>4. Joerak klima-aldaketari edo beste faktore batzuei egozteko atribuzio-analisisa</b>	<b>35</b>
4.1. Olatuen muturreko gertakariak eta kostaldeko higadura handitzea	35
4.1.1. Patroi atmosferikoen eta olatuen arteko erlazioa	35
4.1.2. Kostaldeko higaduraren inpaktua	39
4.2. Aldaketak ur-zutabearen egituran eta produkzio primarioan	41
4.3. Itsasoaren berotzea eta inplikazioak itsas baliabideei dagokienez	44
<b>5. Ondorioak</b>	<b>47</b>
<b>Adierazleetan behatutako joerak</b>	<b>50</b>
<b>Glosarioa</b>	<b>54</b>

<b>1. Introducción</b>	<b>3</b>
<b>2. Metodología</b>	<b>5</b>
2.1. Análisis de series temporales de los indicadores de cambio climático en medio marino y costero	7
2.2. Análisis de la atribución de las tendencias al cambio climático u otros factores	8
<b>3. Análisis de las series temporales de los indicadores de cambio climático</b>	<b>9</b>
3.1. Indicadores fisicoquímicos marinos	9
3.1.1. Temperatura del mar	9
3.1.2. Salinidad	11
3.1.3. Termoclina, estratificación y capa de mezcla invernal	12
3.1.4. Oxígeno	16
3.1.5. Nutrientes inorgánicos disueltos	17
3.1.6. Nivel del mar	18
3.1.7. Oleaje	20
3.2. Indicadores atmosféricos e hidrológicos	23
3.3. Indicadores geomorfológicos de erosión costera	23
3.3.1. Área supramareal e intermareal	24
3.3.2. Anchura media de la playa	25
3.4. Indicadores biológicos y del ecosistema marino	26
3.4.1. Fitoplancton	27
3.4.2. Macroalgas y otras comunidades de sustrato duro	31
3.4.3. Macroinvertebrados bentónicos de sustrato blando	31
3.4.4. Peces	32
3.5. Nuevos indicadores	35
<b>4. Análisis de atribución de las tendencias al cambio climático u otros factores</b>	<b>35</b>
4.1. Aumento de eventos extremos de oleaje y erosión costera	35
4.1.1. Relación entre los patrones atmosféricos y el oleaje	35
4.1.2. Impacto en la erosión costera	39
4.2. Cambios en la estructura de la columna de agua y la producción primaria	41
4.3. Calentamiento del mar e implicaciones en los recursos marinos	44
<b>5. Conclusiones</b>	<b>47</b>
<b>Tendencias observadas en los indicadores</b>	<b>50</b>
<b>Glosario</b>	<b>54</b>

## 1. Sarrera

Ozeanoek funtsezko zeregina dute klima erregulatzeko orduan, eta, beraz, klima-aldaketaren modulazioan. Beroa eta karbono dioxidoa (CO<sub>2</sub>) xurgatzeko eta birbanatzeko duen gaitasunaren ondorioa da hori. Kalkulatzen da berotegi-efektuko gasek Lurrean harrapatutako gehiegizko beroaren % 90 inguru ozeanoetan metatzen dela (Abram et al., 2019; Cheng et al., 2019; von Schuckmann et al., 2020; Foster et al., 2022). Atmosferara askatutako CO<sub>2</sub> biltegitratzeko eta banatzeko ahalmenaren ondorioz, ozeanoa Lurreko bigarren karbono-hustulekua da (jatorri antropogenikoko CO<sub>2</sub>-aren % 20-30 inguruko xurgapena) (Gruber et al., 2019; Friedlingstein et al., 2020). Hala ere, xurgapen horiek aldaketak eragiten dituzte ozeanoan, hala nola berotzea, itsas mailaren igoera, desoxigenazioa, estratifikazioa areagotzea eta zirkulazio-aldaketak, kostaldeko ekaitzak edo azidotzea. Horrek guztiak ondorio garrantzitsuak ditu biodibertsitatean eta itsas bizitzan, hala nola aldaketak espezieen banaketan edo fenologian, arrantza-intereseko espezieetan aldaketak egitea barne. Kostaldeko populazioek ere handitu egingo dute kostaldeko uholdeek edo hondartzen higadurak eragindako kalteen arriskua.

UNESCOk Garapen Jasangarrirako Ozeanoen Zientziarako Nazio Batuen Hamarkada (2021-2030) bideratu zuen, ezagutzak sortu eta erabiltzeko misioarekin, ozeanoa garbia, osasungarria eta erresistentea, auresan bezalako, segurua, modu jasangarrian ustiatua, gardena eta irisgarria izan dadin (Ryabinin et al., 2019; UNESCO, 2020). Helburu horien lorpenak prozesu ozeanikoei eta klima-aldaketak eskualde-eskalan duen inpaktuari buruzko ezagutza hobetzea izan behar du oinarri, eta arintze-eta egokitzapen-neurri espezifikoak proposatzeko aukera emango du ezagutza horrek. Horretarako, monitorizazio- eta jarraipen-sistema integratuak behar dira, denboran zehar jarraituak, funtsezko aldagai ozeanografiko desberdinen denbora-serie luzeak emateko. Monitorizazio horrek aukera emango du zehazteko egoera, dinamika, aldakortasuna eta bilakaera, baita aldaketak eta horien arrazoiak detektatzeko eta klima-aldaketaren agertokietan aldaketen iragarpen- eta proiektzio-ereduak hobetzeko ere.

## 1. Introducción

Los océanos desempeñan un papel fundamental en la regulación del clima y por tanto en la modulación del cambio climático. Esto se debe a su capacidad de capturar y redistribuir calor y dióxido de carbono (CO<sub>2</sub>). Se estima que aproximadamente el 90% del exceso de calor de la Tierra que es atrapado por los gases de efecto invernadero se acumula en los océanos (Abram et al., 2019; Cheng et al., 2019; von Schuckmann et al., 2020; Foster et al., 2022). La capacidad de almacenamiento y distribución del CO<sub>2</sub> liberado a la atmósfera, hace que el océano sea el segundo sumidero de carbono de la Tierra (absorción cercana al 20-30 % del CO<sub>2</sub> de origen antropogénico) (Gruber et al., 2019; Friedlingstein et al., 2020). Sin embargo, estas absorciones provocan cambios en el océano como su calentamiento, subida del nivel del mar, desoxigenación, intensificación de la estratificación y cambios en la circulación, tormentas costeras o la acidificación. Todo ello tiene importantes consecuencias sobre la biodiversidad y vida marina, en forma de cambios en la distribución de especies o su fenología, incluyendo cambios en las especies de interés pesquero. Las poblaciones costeras también verán incrementado el riesgo de daños por inundación costera o erosión de playas.

La UNESCO proclamó el Decenio de las Naciones Unidas para la Ciencia de los Océanos para el Desarrollo Sostenible (2021-2030) con la misión de producir y utilizar los conocimientos para un océano limpio, saludable y resistente, predicho, seguro, explotado de manera sostenible y productivo, transparente y accesible (Ryabinin et al., 2019; UNESCO, 2020). La consecución de estos objetivos debe basarse en un mejorar conocimiento sobre los procesos oceánicos y el impacto del cambio climático a una escala regional, conocimiento que permita proponer medidas de mitigación y adaptación específicas. Para ello, son necesarios sistemas de monitorización y seguimiento integrados, continuos en el tiempo, que faciliten largas series temporales de distintas variables oceanográficas esenciales. Esta monitorización permitirá determinar el estado, dinámica, variabilidad, evolución, la detección de cambios y sus causas y la mejora de los modelos de predicción y proyección de cambios bajo escenarios de cambio climático.

Hori da Naturklimaren itsasoko eta kostaldeko behatokiaren helburua, **klima-aldaketaren eta haren efektuen jarraipen-sistema integratua izatea, klima-aldaketaren adierazle batzuk monitorizatzu**. Hori funtsezkoa da arriskuei aurrea hartu eta Gipuzkoako kostaldean egin beharreko egokitzapen irizpideak definitu ahal izateko. Horrekin, Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia, Gipuzkoa Klima 2050en hiru jomugari lagundu nahi zaie:

- 3. jomuga: Lurraldearen efizientzia eta erresiliencia areagotzea. Zehazki, honako jarduketa lerro hau: 3.3 “Klima-aldaketa integratzea hondartzan, estuarioen eta dunen kudeaketan”.
- 4. jomuga: Natura-ingurunearen erresiliencia handitzea.
- 7. jomuga: Arriskuei aurrea hartzea. 7.2 ekintza (“Arriskuen kartografia, modelizazioa eta monitorizazioa eguneratzea eta hobetzea”) eta 7.3 ekintza (“Klima-aldaketak lurraldean dituen inpaktuen monitorizazioa eta jarraipena”).

Este es el objetivo del observatorio marino-costero de Naturklima, ser **un sistema integrado de seguimiento del cambio climático y sus efectos, a través de la monitorización de una serie de indicadores de cambio climático**. Esto es clave para poder anticiparnos a los riesgos y definir los criterios de adaptación que deban llevarse a cabo en la costa guipuzcoana. Con ello, se pretende además contribuir a tres de las metas de la Estrategia guipuzcoana de Lucha Contra el Cambio Climático, Gipuzkoa Klima 2050:

- Meta 3: Incrementar la eficiencia y resiliencia del territorio. En concreto a la línea de actuación 3.3 “Integrar el cambio climático en la gestión de playas, estuarios y dunas”.
- Meta 4: Aumentar la resiliencia del medio natural.
- Meta 7: Anticipación de los riesgos. Acción 7.2 “Actualizar y mejorar la cartografía, modelización y monitorización de riesgos” y Acción 7.3 “Monitorización y seguimiento de los impactos del cambio climático sobre el territorio”.

## 2 Metodologia

Gipuzkoako klima-aldaketaren itsasertzeko behatokiaren helburua klima-aldaketaren adierazleen jarraipena eta analisisa egitea da. Horretarako, bi adierazle-mota definitu dira: (1) klima-sistemaren egoera fisikoa eta haren bilakaera historikoa deskribatzen dituztenak, eta (2) inpaktuak, arriskua eta egokitzapena deskribatzen dituztenak. Klima-aldaketaren 19 adierazle identifikatu dira guztira Gipuzkoako kostalderako, klima-aldaketaren ondorioz alda daitezkeen aldagai fisiko-kimikoak, geomorfologikoak eta biotikoak barne. Horiek guztiek ere gure itsasoaren egoeraren irudi globala ematen dute, eta joerak eta aldaketak detektatzeko modua ematen dute.

## 2. Metodología

El observatorio marino-costero de cambio climático de Gipuzkoa tiene como objetivo el seguimiento y análisis de indicadores del cambio climático. Para ello, se han definido dos tipos de indicadores, (1) los que describen el estado físico del sistema climático y su evolución histórica, y (2) los que describen impactos, riesgo y adaptación. Se han identificado un total de 19 indicadores de cambio climático para la costa de Gipuzkoa, incluyendo variables fisicoquímicas, geomorfológicas y bióticas que pueden variar como consecuencia del cambio climático. Todos ellos también proporcionan una imagen global del estado de nuestro mar y permiten detectar tendencias y cambios.


<b>Klima-aldaketaren adierazleak</b> Indicadores de cambio climático	<b>Itsasoko tenperatura</b>	Temperatura del mar
	<b>Gazitasuna</b>	Salinidad
	<b>Oxigenoa</b>	Oxígeno
	<b>Mantenugai ez-organikoak</b>	Nutrientes inorgánicos
	<b>Itsas maila</b>	Nivel del mar
	<b>Olatuak</b>	Oleaje
	<b>Airearen tenperatura</b>	Temperatura del aire
	<b>Intsolazioa eta eguzki-orduak</b>	Insolación y horas de sol
	<b>Haizearen norabidea eta abiadura</b>	Dirección y velocidad del viento
	<b>Prezipitazioa</b>	Precipitación
	<b>Ibai-emia estuarioan</b>	Caudal fluvial en estuario
<b>Klima-aldaketaren inpaktuaren adierazleak</b> Indicadores del impacto del cambio climático	<b>Kosta-lerroa</b>	Línea de costa
	<b>Hondartzen morfologia</b>	Morfología de playas
	<b>Bakterioak eta pikoeukariotoak</b>	Bacterias y picoeucariotas
	<b>Fitoplanktona</b>	Fitoplancton
	<b>Makroalgak</b>	Macroalgas
	<b>Makroornogabeak</b>	Macroinvertebrados
	<b>Arrainak</b>	Peces
<b>Klima-aldaketaren aurkako erresilientziaren adierazleak</b> Indicadores de resiliencia al cambio climático	<b>Kosta-lerroa</b>	Línea de costa
	<b>Hondartzen morfologia</b>	Morfología de playas
	<b>Makroalgak</b>	Macroalgas
	<b>Makroornogabeak</b>	Macroinvertebrados
	<b>Arrainak</b>	Peces

1. 1. ird. Gipuzkoako Itsasertzeko Behatokiaren adierazleak, ematen duten informazioaren arabera sailkatuta.

1. Fig. Indicadores del Observatorio marino-costero de Gipuzkoa, clasificados en función de la información que proporcionan.

Adierazle desberdinak kalkulatzeko, plataforma kontinentalean egindako behaketa-multzo zabal batean oinarritzen da, hala nola buia ozeanografi-koek edo mareografoek egindako denbora errealeko neurketak, zenbait erakundek jasotakoak –Estatuko Portuek, Ozeanografiaren Espainiako Institutuak, Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak eta BIMEP-EVEk-. Denbora ia-errealeko behaketen multzo hori *in-situ* egindako neurketekin osatzen da, hala nola AZTIk egindako “Aldakuntzak” proiektuari lotutako kanpainetan, arrantza-stocken ebaluazio-kanpainetan edo EAeko Egoera Ekologikoaren Kalitate Sarearen bitartez egindakoekin, hain zuzen. Gainera, AEMETen azaleko behaketa meteorologikoen sareko datuak erabiltzen dira, baita Ingurumena eta Obra Hidraulikoak Departamentuaren Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Itsasertzeko Bideometria Foru Sarekoak, Ingurumena eta Obra Hidraulikoak Departamentuaren Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko estazio iraunkorren sarekoak, satellite-irudiak (hainbat sensore eta orbita polarreko satellite, NOAA-AVHRR, MODIS-AQUA, MODIS-TERRA, VIIRS, ASEAWIFS, MSRE, Sentinel-3, ESA/NASA, ESA-CCI-SEASTATE, CERSAT, CEDA) eta berranalisi-datuak ere (Estatuko Portuetako SIMAR, IBI-MFC - CMEMS eta GOW - IHCantabria).

El cálculo de los distintos indicadores se basa en un amplio conjunto de observaciones realizadas sobre la plataforma continental, como las mediciones en tiempo real realizadas por boyas oceanográficas o mareógrafos recogidas por distintas entidades como Puertos del Estado, el Instituto Español de Oceanografía, la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco o BIMEP-EVE. Este conjunto de observaciones en tiempo casi-real se complementa con medidas *in-situ* recogidas durante campañas como las asociadas al proyecto ‘Variaciones’ realizadas por Azti, campañas de evaluación de stocks pesqueros o la Red de Calidad del Estado Ecológico de la CAPV. Además, se utilizan datos de la red de observaciones meteorológicas en superficie de AEMET, la Red Foral de Videometría costera de la Dirección General de Medio Ambiente - Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, la Red de estaciones permanentes de la Dirección de Obras Hidráulicas también del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, imágenes de satélite (varios sensores y satélites de órbita polar, NOAA-AVHRR, MODIS-AQUA, MODIS-TERRA, VIIRS, ASEAWIFS, MSRE, Sentinel-3, ESA/NASA, ESA-CCI-SEASTATE, CERSAT, CEDA) y datos de reanálisis (SIMAR de Puertos del Estado, IBI-MFC de CMEMS, GOW de IH Cantabria).



2. ird. Aldagai fisiko-kimiko eta biologikoen jarraipen-programa nagusiak; bertan biltzen diren datuetatik eratoritzen dira klima-aldaketa adierazleak.

2. Fig. Principales programas de seguimiento de variables físico-químicas y biológicas que recogen las variables a partir de los cuales se derivan los indicadores de cambio climático.

Adierazle bakoitzaren analisirako metodologia zehatz bat aplikatu da, aldagai bakoitzaren eta datuen eskuragarritasunaren arabera, adierazlearen denboran zeharreko aldakuntza posibleak ezartzeko, baita aldakuntza horien eta gure eremuari dagokion klima-aldaketaren arteko harremana ere. Gainera, detektatutako joeren balizko kausak aztertu dira, klima-aldaketa beste kausa posible batzuetatik bereizteko.

## 2.1. Klima-aldaketaren adierazleen denbora-serieen analisia itsas ingurunean eta kostaldean

Klima-aldaketaren adierazleen analisia espezifikoa da aldagai-mota bakoitzerako, eta denbora-eta espazio-dimentsio desberdinetan erabilgarri dauden datuen arabera da. Hala ere, azterketan erabilitako metodo guztien helburua da aztertutako adierazlea denboran zehar aldatzen den eta aldakuntza hori gure eremuari dagokion klima-aldaketarekin lotuta ote dagoen zehaztea. Klima-aldaketarekin izan daitekeen harremanaren zantzuak denboran zeharreko joera linealaren arabera ezarri dira, eta/edo kasuan kasuko aldagaiak klima-aldaketarekin zuzeneko lotura duen aldagaiarekin duen harremanaren arabera.

Denboran zeharreko joera-analisia Eredu Gehigarri Orokorren (GAMs) bidez egin da (Simpson, 2018). Eredu horiek datu irregularretarako egokitutako metodoak dira, autokorrelazioa, ziklo konplexuak edo argi definitu gabeak dituztenak, eta denbora-serieak aztertzeke aukera ematen dutenak. Joera kalkulatzeko, eredu gehigarri bat hartzen da; hau da, edozein aldagai deskonposa daiteke denboran zeharreko joera linealean, gorabehera ziklikoetan eta datua lortzean sortutako errorean. Eredu horiek adierazle bakoitzerako egokitu dira, datu-motaren, aldagaiaren eta analisiaren helburuaren arabera –hala nola batezbestekoaren analisia, muturreko gertakarien joeraren analisia edo komunitatearen osaera espezifikoko aldaketen analisia–.

Para el análisis de cada uno de los indicadores se ha aplicado una metodología específica en función de la variable y de la disponibilidad de datos, con el objetivo de establecer posibles variaciones temporales del indicador y la relación de estas variables con el cambio climático correspondiente a nuestra zona. Además, se han analizado las posibles causas de las tendencias detectadas, para diferenciar el cambio climático de otras posibles causas.

## 2.1. Análisis de series temporales de los indicadores de cambio climático en medio marino y costero

El análisis realizado de los indicadores de cambio climático es específico para cada tipo de variable y función también de los datos disponibles en las diferentes dimensiones temporal y espacial. No obstante, todos los métodos empleados en el estudio tienen como objetivo establecer si el indicador analizado varía en el tiempo y si esa variación está relacionada con el cambio climático correspondiente a nuestra zona. Los indicios de la posible relación con el cambio climático se han establecido con una tendencia lineal en el tiempo y/o con una relación de la variable en cuestión con la variable climática más directamente asociada al cambio climático.

El análisis de tendencia en el tiempo se ha realizado mediante Modelos Aditivos Generalizados (GAMs) (Simpson, 2018). Estos modelos son métodos adaptados para datos irregulares, que presentan autocorrelación, con ciclos complejos o no definidos claramente que permiten analizar series temporales. Para el cálculo de la tendencia se asume un modelo aditivo, esto es, que cualquier variable se puede descomponer en una tendencia lineal en el tiempo, fluctuaciones cíclicas y un error de obtención del dato. Estos modelos se han adaptado para cada indicador en función del tipo de dato, variable y objetivo del análisis, como análisis del promedio, análisis de tendencias de eventos extremos o análisis de cambios en la composición específica de la comunidad.

## 2.2. Joerak klima-aldaketari edo beste faktore batzuei egozteko atribuzio-analisia

Klima-aldaketaren adierazleetan behatutako joeren balizko arrazoiak aztertu dira, klima-aldaketa beste kausa posible batzuetatik bereizteko (klima ozeanikoaren aldakortasun naturala edo jatorri antropogenikoko arrazoiak, hala nola arrantza eta kutsadura), teknika estatistikoak erabiliz (adibidez, eredu gehigarri orokor mistoak, joera-aldaketen analisia, metodo korrelatiboak), baita sistemen modelizazio mekanikorako teknikak ere. Analiak hiru adierazle-multzo hauei esleitzea izan du ardatz:

- Olatuen eta kostaldeko higaduraren muturreko gertakarien gorakada: olatuetan behatutako joeraren eta atmosferako behartzeen arteko harremanaren analisia, baita olatuen eta hondartzen higaduraren arteko harremanarena ere.
- Aldaketak ur-zutabearen egituran eta produkzio primarioan: neguko nahaste-geruzaren aldaketek (sakontzea) fitoplanktonaren biomasan duten efektuen analisia haren urtaro-zikloan zehar.
- Itsasoaren berotzea eta ekosisteman eta itsas baliabideetan dituen inplikazioak: berotzearen efektuaren analisia bentoseko kostaldeko komunitateen birbanaketaren joera behatuei dagokionez, baita azken bi hamarkadetan detektatutako antxoaren neurriaren murrizketari dagokionez ere.

## 2.2. Análisis de la atribución de las tendencias al cambio climático u otros factores

Se han analizado las posibles causas de las tendencias observadas en indicadores de cambio climático, para diferenciar el cambio climático de otras posibles causas (variabilidad natural del clima oceánico o causas de origen antropogénico como pesca, polución), a través del uso de técnicas estadísticas (por ej., modelos aditivos generalizados mixtos, análisis de cambios de tendencia, métodos correlativos) y de modelización mecánica de los sistemas. El análisis se ha centrado en la atribución de causas de tres grupos de indicadores:

- Aumento de eventos extremos de oleaje y erosión costera: análisis de la relación entre la tendencia observada en el oleaje con los forzamientos atmosféricos, y la relación entre el oleaje y la erosión de playas.
- Cambios en la estructura de la columna de agua y la producción primaria: análisis del efecto de cambios (profundización) en la capa de mezcla invernal en la biomasa del fitoplancton a lo largo de su ciclo estacional.
- Calentamiento del mar e implicaciones en el ecosistema y recursos marinos: análisis del efecto del calentamiento en las tendencias observadas en la redistribución de las comunidades costeras del bentos y en la disminución de la talla de la anchoa detectada en las dos últimas décadas.



### 3. Klima-aldaketaren adierazleen denbora-serieen analisia

### 3. Análisis de las series temporales de los indicadores de cambio climático

#### 3.1. Itsasoko adierazle fisiko-kimikoak

#### 3.1. Indicadores fisicoquímicos marinos

##### 3.1.1. Itsasoko temperatura

##### 3.1.1. Temperatura del mar

Ozeanoak berotzen aritu dira hamarkadatan berotegi-efektuko gasen isuriak areagotu direlako; izan ere, ozeanoek Lurrean metatutako beroaren % 90 inguru xurgatzen eta biltegitratzen dute (Abram et al., 2019; Cheng et al., 2019; von Schuckmann et al., 2020; Foster et al., 2022; Johnson & Lumpkin, 2022). Horren guztiaren ondorioz, itsasoko tenperaturaren denbora-serieen analisia funtsezko klima-adierazlea da.

Los océanos han estado calentándose durante décadas debido al aumento de las emisiones de gases de efecto invernadero ya que los océanos absorben y almacenan alrededor del 90 % del calor acumulado en la Tierra (Abram et al., 2019; Cheng et al., 2019; von Schuckmann et al., 2020; Foster et al., 2022; Johnson & Lumpkin, 2022). Por ello, el análisis de las series temporales de temperatura del mar constituye un indicador climático fundamental.

Temperatura, gainera, ekosistemen ikuspegi-tik garrantzi handia duen aldagai ozeanografikoa da. Izan ere, honako hauek baldintzatzen ditu: espezieen biziraupena, banaketa eta metabolismoa, itsaslasterrak, mantenugaien ekarpena azaleko geruzetan, itsas maila eta gas-trukea atmosferarekin, uren azidotzea eta oxigenazioa kontrolatzen dituena.


La temperatura es, además, una variable oceanográfica de gran importancia ecosistémica. Ello se debe a que condiciona la supervivencia, la distribución y metabolismo de especies, las corrientes oceánicas, el aporte de nutrientes a las capas superficiales, el nivel del mar y el intercambio de gases con la atmósfera, que controla la acidificación y oxigenación de las aguas.

Eskala globalean ozeanoaren azaleko tenperaturak  $0,10 \pm 0,01$  °C-ko igoera-tasa du hamarkada bakoitzeko 1950etik 2021era bitartean (Johnson & Lumpkin, 2022). Berotze hori, gainazalean areagotuta egon arren, sakonera guztietara zabaltzen da (Cheng et al., 2020; Meinen et al., 2020).

A escala global la temperatura superficial del océano presenta una tasa de ascenso de  $0,10 \pm 0,01$  °C por década entre 1950 y 2021 (Johnson & Lumpkin, 2022). Este calentamiento, aunque intensificado en la superficie, se extiende a todas las profundidades (Cheng et al., 2020; Meinen et al., 2020).

Donostiako Aquariumean 1946–2020 aldian neurtutako itsasoko uraren azaleko tenperaturak goranzko joera du 1980tik,  $0,249 \pm 0,034$  °C-koa hamarkada bakoitzeko.

La temperatura superficial del agua de mar medida en el Aquarium de Donostia-San Sebastián en el periodo 1946–2020 presenta una tendencia creciente desde 1980,  $0,249 \pm 0,034$  °C por década.




3. ird. Donostiako Aquariumeko uraren azaleko temperatura denbora-seriearen hasieratik gaur egunera arte (1946–2020). Datu iragaziak ( $T < 1$  urte gabe) eta joera-aldaketaren analisia.

3. Fig. Temperatura superficial del agua en el Aquarium de Donostia-San Sebastián desde el inicio de la serie temporal hasta la actualidad (1946–2020). Datos filtrados (sin  $T < 1$  año) y análisis del cambio de tendencia.

Bizkaiko golkoan eta Gipuzkoako kostaldean itsasoaren berotze graduala nabaritzen da, 80ko hamarkadatik aurrera izandako klima-aldaketari lotuta dagoena. Sakoneraren eta kokapenaren arabera, berotze-tasak 0,16 °C eta 0,25 °C bitartekoak dira hamarkada bakoitzeko, eta berotzerik handiena azaleko geruzetan gertatzen da.

En el golfo de Vizcaya y las costas guipuzcoanas se aprecia un calentamiento del mar gradual asociado al cambio climático a partir de los años 80. Dependiendo de la profundidad y localización, las tasas de calentamiento oscilan entre 0,16 °C y 0,25 °C por década, siendo el calentamiento más intenso en las capas superficiales.



4. ird. Bizkaiko golkoko SSTren joerak 1982–2019 aldian.

4. Fig. Tendencias en la SST del golfo de Vizcaya en el periodo 1982–2019.

Horrela, adibidez, 1980az geroztik Donostiako Aquariumean ikusitako berotze-tasa  $0,249 \pm 0,034$  °C-koa da hamarkada bakoitzeko; Pasaia pareko kostaldeko estazioko (Pasaitik 13,1 km ingurura dagoeneko) ur-zutabearen lehen 100 m-etako tenperaturak, berriz,  $0,16 \pm 0,04$  °C-ko goranzko joera esanguratsua du. Tasa horiek aurretiazko azterlanetan detektatutako joerak berresten dituzte (Valencia et al., 2004; Goikoetxea et al., 2009; González et al., 2008; Costoya et al., 2015).

Uraren azaleko temperatura Bizkaiko golko osoan handitzen ari da, baina tasa altuagoekin ( $0,3$  °C hamarkada bakoitzeko) haren hego-mendebaldean. Euskal kostaldeko berotze handiago hori azal liteke lehorreko ingurunearen eta plataforma kontinentalaren eraginez, eta, beraz, klima-aldaketaren adierazle nagusia den airearen berotzearen ondorioz (IPCC-AR5, 2013).

### 3.1.2. Gazitasuna

Gazitasuna aldaketa globalaren zeharkako aldagaia da. Aipatu behar da gatz-kantitatea ia konstante mantentzen dela maila globalean, eta, beraz, balitekeela horren aldakuntzak glaziarren eta izotz kontinentalaren desizozteak gehitutako ur gezaren aldaketetatik etortzea nagusiki. Izotzaren azalera osoa eta elur-estaldura berotze globalarekin murriztu ahala, ozeanoei ur geza gehitzen zaie; horrek aldaketak eragiten ditu itsasoko gazitasunean (IPCC-AR5, 2013). Ozeanoko gazitasunaren patroiak ur gezaren azaleko fluxuaren patroia islatzen du, lurruntzearen, prezipitazioaren eta nahastearen arteko balantzearen ondorio dena. Berotze-maila handiagoarekin -eta, beraz, ziklo hidrológicoaren intentsitate handiagoarekin- gazitasun-patroiak areagotu egingo direla espero da, gaur egun lurruntze garbia jasaten ari diren eremuen gazitasuna handituz, eta prezipitazio garbia duten eremuen gazitasuna murriztuz (Rhein et al., 2013).

Gazitasunak eta tenperaturak baldintzatzen dute, nagusiki, itsasoko uraren dentsitatea. Horregatik, gazitasunaren aldaketek eragina dute ur-zutabearen estratifikazioan ere, eta horrek inpaktuak izan ditzake mantenugaien zikloetan eta, ondorioz, baita produkzio primarioan ere. Tenperaturak bezala, gazitasunak eragina du itsasoko espezie eta ekosistema jakin batzuen biziraupenean.

Así, por ejemplo, la tasa de calentamiento observada en el Aquarium de Donostia-San Sebastián desde 1980 es de  $0,249 \pm 0,034$  °C por década, mientras que la temperatura en los primeros 100 m de la columna de agua en la estación costera frente a Pasaia (aproximadamente a 13,1 km de Pasaia) presenta una tendencia creciente significativa de  $0,16 \pm 0,04$  °C. Estas tasas confirman las tendencias detectadas en estudios previos (Valencia et al., 2004; Goikoetxea et al., 2009; González et al., 2008; Costoya et al., 2015).

La temperatura superficial del agua se está incrementando en todo el golfo de Vizcaya, pero con tasas más altas ( $0,3$  °C por década) en el suroeste del mismo. Este mayor calentamiento en la costa vasca podría explicarse por la influencia terrestre y de la plataforma continental y, por tanto, por el calentamiento del aire, principal indicador de cambio climático (IPCC-AR5, 2013).

### 3.1.2. Salinidad

La salinidad es una variable indirecta del cambio global. Cabe mencionar que la cantidad de sal a nivel global se mantiene prácticamente constante, por lo que sus variaciones podrían derivar principalmente de cambios en el agua dulce incorporada por el deshielo de los glaciares y el hielo continental. A medida que se reduce la superficie total del hielo y la cubierta de nieve con el calentamiento global, se va incorporando más agua dulce a los océanos, lo que provoca cambios en la salinidad del mar (IPCC-AR5, 2013). El patrón de salinidad en el océano refleja el patrón del flujo de agua dulce en superficie, resultante del balance entre evaporación, precipitación y mezcla. Se espera que, con mayores niveles de calentamiento, y por tanto un incremento de la intensidad del ciclo hidrológico, los patrones de salinidad se intensifiquen, con las áreas que actualmente experimentan evaporación neta evolucionen a ser más salinas, y las áreas con precipitación neta evolucionen a ser menos salinas (Rhein et al., 2013).

La salinidad, junto con la temperatura, determinan fundamentalmente la densidad del agua de mar. Por ello, cambios en la salinidad también tienen efecto en la estratificación de la columna de agua, que puede tener impactos en los ciclos de nutrientes y con ello en la producción primaria. Al igual que la temperatura, la salinidad también influye en la

Ozeanoko geruza azalekoenetako gazitasunaren eskala globaleko behaketek adierazten dute eboluzionatzen duela lurraren ziklo hidrológicoaren intentsitatea eta ozeanoaren azaleraren estratifikazioa handitzearekin (Durack, 2015; Zika, et al., 2018; Gould & Cunningham, 2021). 1960–2017 aldian, ur-zutabearen lehen 2000 metroetan, gazitasuna hamarkada bakoitzeko  $3,8 \pm 2,6 \times 10^{-4} \text{ g kg}^{-1}$  jaitsi egin dela baina espazio-banaketa aldakorra izan dela ikusten da (Cheng et al., 2020). Ipar Atlantikoan behatutako gazitasunaren beherakada bat dator esperotako Atlantiko Meridionalaren Iraultze Zirkulazioaren (AMOC ingelesezko siglen arabera) intentsitatea murriztearekin, ziklo hidrológicoaren aldaketekin eta itsas izotzaren bolumenaren murrizketarekin (Bindoff et al., 2019).

Pasaiaiko kostaldearen parean dagoen D2 estazioan, ur-zutabearen lehen 100 metroetan gazitasunak duen joera negatiboa da 1986–2020 aldian ( $0,049 \pm 0,007$  hamarkada bakoitzeko). Estazio honen ezaugarriak kontuan hartuta (110 m-ko sakonera), zaila da puntu honetako gazitasunaren murrizketa klima-aldaketarekin lotutako eskala globaleko prozesuekin lotzea, hala nola Ipar Atlantikoko latitude altuetako eta Artikoko arroko gazitasunaren murrizketarekin (Bindoff et al., 2019). Ur-zutabearen 100 metroko sakonerarako, prezipitazioaren efektua gazitasun txikiko anomalien zabaltzea baino garrantzitsuagoa izan daiteke; izan ere, sakonera horretan, gure itsasertzerira iritsi zitekeen jatorri subpolarreko ur nagusien seinalea indargetuta agertzen da.

### 3.1.3. Termoklina, estratifikazioa eta neguko nahaste-geruza

Klima-aldaketaren ondorioz ozeanoko geruza azalekoenak berotzeak ur-zutabearen estratifikazio handiagoa eragin dezake (Li et al., 2020), azaleko uren eta geruza sakonagoen arteko nahasketa bertikala murriztuz. Termoklina da tenperatura sakonearekin bat-batean jaisten den trantsizio-eremua, tenperatura homogeneousak dituen goiko geruza bero bat eta sakoneko ur hotz eta trinkoak bereizten dituena. Termoklinaren jarraipenak estratifikazio-zikloak behatzeko aukera ematen du. Termoklina

supervivencia de determinadas especies y ecosistemas marinos.

Las observaciones a escala global de la salinidad en las capas más superficiales del océano indican que evoluciona en relación al incremento de la intensidad del ciclo hidrológico de la tierra y al incremento de la estratificación de la superficie del océano (Durack, 2015; Zika, et al., 2018; Gould & Cunningham, 2021). En el periodo 1960–2017, en los primeros 2000 m de la columna de agua, se observa un descenso en la salinidad de  $3,8 \pm 2,6 \times 10^{-4} \text{ g kg}^{-1}$  por década, aunque con una distribución espacial desigual (Cheng et al., 2020). En el Atlántico Norte, se observa una disminución de la salinidad, consistentes con la esperada disminución de la intensidad de la circulación meridional de vuelco del atlántico (AMOC por sus siglas en inglés), los cambios en el ciclo hidrológico y la disminución del volumen del hielo marino (Bindoff et al., 2019).

En la estación D2 situada frente a la costa de Pasaia, la tendencia de la salinidad en los primeros 100 m de la columna de agua presenta una tendencia negativa ( $0,049 \pm 0,007$  por década) en el periodo 1986–2020. Dada las características de esta estación (profundidad de 110 m) es difícil asociar la disminución de la salinidad en este punto con procesos de escala global relacionados con el cambio climático, como la disminución de la salinidad en latitudes altas del Atlántico Norte y la cuenca del ártico (Bindoff et al., 2019). Para el espesor de la columna de agua de 100 m, el efecto de la precipitación puede ser más importante que la propagación de anomalías de baja salinidad, ya que a esta profundidad la señal de las aguas centrales de origen subpolar que podría llegar a nuestro litoral aparece amortiguada.

### 3.1.3. Termoclina, estratificación y capa de mezcla invernal

El calentamiento de las capas más superficiales del océano debido al cambio climático puede conllevar una mayor estratificación de la columna de agua (Li et al., 2020), reduciendo la mezcla vertical entre las aguas superficiales y las capas más profundas. La termoclina es la zona de transición en la que la temperatura desciende bruscamente con la profundidad, separando una capa superior cálida de temperaturas homogéneas, de las aguas frías y densas en profundidad. El seguimiento de la

adierazteko metodo oso zabaldua da isoterma jakin baten sakontzea erabiltzea. Bizkaiko Golkoko hego-ekialdean estratifikazioaren bilakaeraren aldi baterako indize gisa 14 °C-ko isotermaren murgiltze-sakontzea erabili da (Valencia et al., 2004; 2019). Neguko nahaste-geruzak atmosfera-ozeano sistema akoplatuaren interakzio-sakonera maximoa adierazten du; geruza horretan turbulenzia aktiboa dago, eta bere sakonerak nahasketa bertikal horren intentsitatea adierazten du.

Itsasoaren berotzeak ur-zutabearen estratifikazio handiagoa eragin dezake. 1960az geroztik, estratifikazioa handitu egin da eskala globalean ur-zutabearen lehen 2000 metroetan (Li et al., 2020). Eremu tropikalagoetan, ur-zutabearen estratifikazioak (Li et al., 2020) eragin negatiboa izan dezake itsas fitoplanktona hazteko mantengaien eskuragarritasunean (Steinacher et al., 2010, Bopp et al., 2013, Chust et al., 2014), nahiz eta zenbait egilek prozesu hori zalantzan jartzen duten (Dave & Lozier, 2013). Ozeano irekiko eremu tropikalekin alderatuta, nahasketa handiko eremuetan (eremu subartikoetan), estratifikazioaren igoera horrek produkzio primarioari lagun diezaioke. Itsas sare trofiko bi osagai nagusi horien kantitate global txikiagoak zenbait eskualdetako arrainen biomasa murriztu lezake, bereziki eremu tropikaletan (Steinacher et al., 2010) eta aplikazio trofiko efektuak sor ditzake (Chust et al., 2014).

Bizkaiko golkoan, nahaste-geruzaren sakontzea ikusi da 2000ko erdialdetik; horrek esan nahi du posible dela aurrez gainazalean metatutako anomalia termiko eta hidrikoak sartu izana atmosferaren efektutik isolatuta egon ohi diren sakontasun-mailetan (Somavilla et al., 2017; Valencia et al., 2019). Beraz, estratifikazioak ez du nahitaez handitu behar klima-aldaketaren agertoki batean (González-Pola et al., 2012). Neguan nahaste-geruzaren lodiera handiagoaren beste inplikazioetako bat da geruza sakonen mantengaien ekarpen handiagoa azaleko eremu fotikoari, eta horrek udaberriko "bloom" ari laguntzen dio (Valencia & Franco, 2004; Somavilla et al., 2017; González-Gil et al., 2018; Valencia et al., 2019).

Termoklinaren sakoneraren denbora-serieak eta ur-zutabearen estratifikazio-mailaren serieak aztertu dira Pasaia pareko D2 estazioko lehen 100 metroetan 1993-2020 aldian. Zehazki, bost aldagai

termoclina permite el seguimiento de los ciclos de estratificación. El uso de la profundización de una determinada isoterma para representar la termoclina es un método muy extendido. En el sureste del golfo de Vizcaya se ha utilizado como índice temporal de la evolución de la estratificación la profundización de inmersión de la isoterma de 14 °C (Valencia et al., 2004; 2019). La capa de mezcla invernal indica la máxima profundidad de interacción del sistema acoplado atmósfera-océano, es una capa donde hay una activa turbulencia y su profundidad indica la intensidad de esta mezcla vertical.

El calentamiento del mar puede conllevar una mayor estratificación de la columna de agua. Desde 1960, se observa a escala global un incremento de la estratificación en los primeros 2000 m de la columna de agua (Li et al., 2020). En zonas más tropicales, la estratificación de la columna de agua (Li et al., 2020) puede afectar negativamente la disponibilidad de nutrientes para el crecimiento del fitoplancton marino (Steinacher et al., 2010, Bopp et al., 2013, Chust et al., 2014), si bien hay ciertos autores que ponen en duda dicho proceso (Dave & Lozier, 2013). En contraste con las zonas tropicales del océano abierto, en zonas con mucha mezcla (zonas subárticas), dicho incremento de la estratificación puede favorecer la producción primaria. La menor cantidad global de estos dos componentes principales de la red trófica marina podría reducir la biomasa de los peces en ciertas regiones, especialmente en las zonas tropicales (Steinacher et al., 2010) y producir efectos de amplificación trófica (Chust et al., 2014).

En el golfo de Vizcaya, desde mediados del 2000 se ha observado su profundización de la capa de mezcla, indicando la posible integración de las anomalías térmicas e hídricas previamente acumuladas en superficie a niveles de profundidad que habitualmente están aislados del efecto de la atmósfera (Somavilla et al., 2017; Valencia et al., 2019). Esto indica que la estratificación no necesariamente tiene que aumentar en un escenario de cambio climático (González-Pola et al., 2012). Otra de las implicaciones del mayor espesor de la capa de mezcla en invierno es un mayor aporte de nutrientes de las capas profundas a la zona fótica superficial, que favorece el "bloom" primaveral de fitoplancton (Valencia & Franco, 2004; Somavilla et al., 2017; González-Gil et al., 2018; Valencia et al., 2019).

aztertu dira: 14 °C-ko isotermaren sakonera (urte osoan), 14 °C-ko isotermaren sakonera (hura dagoen hilabeteetan, apiriletik abenduaren erdialdera), estratifikazio termikoa, estratifikazio termohalinoa eta neguko nahaste-geruzaren gehieneko sakonera (urtarrila-martxo, 1986-2020).


Aztertutako aldagaietatik, 14 °C-ko isotermaren sakonerak soilik du joera esanguratsu negatiboa, hau da, sakontzen ari da ( $-4,7134 \pm 1,9337$  m hamar-kada bakoitzeko). Valencia et al.-ek (2004, 2019) ondorioztatu zuten adierazitako termoklina 2007-2017 aldian sakondu zela 1986-2006 aldiarekin alderatuta, 2006ko udazkenean eta 2007ko neguan zehar oso baldintza beroak nagusitu zirelako. Aldi horretan bertan hondoratze-gertakarien maiztasuna eta intentsitatea handitzeak aurrez metatutako bero-edukia ur-zutabeen sartu zuen.

Se han analizado las series temporales de la profundidad de la termoclina y del grado de estratificación de la columna de agua en los primeros 100 m en la estación D2 frente a Pasaia durante el periodo 1993-2020. En concreto, se han analizado cinco variables: profundidad de la isoterma de 14 °C (todo el año), profundidad de la isoterma de 14 °C (en los meses en los que está presente, abril-mediados diciembre), estratificación térmica, estratificación termohalina y la profundidad máxima de la capa de mezcla invernal (enero-marzo, 1986-2020).

De las variables analizadas, solamente la profundidad de la isoterma de 14 °C presenta una tendencia significativa negativa, esto es, se profundiza ( $-4,7134 \pm 1,9337$  m por década). Valencia et al. (2004, 2019) concluyeron que la termoclina indicada se profundizó en el periodo 2007-2017 con relación al periodo 1986-2006 debido al predominio de condiciones muy cálidas durante el otoño de 2006 e invierno de 2007. El aumento de la frecuencia e intensidad de los eventos de hundimiento en esta misma época integró en la columna de agua el contenido en calor previamente acumulado.

Ur-zutabea karakterizatzen duten denbora-seriearen emaitzek adierazten dute klima-aldaketaren ondorioz itsasoa eremu horretan berotzeak 14 °C-ko isoterma sakontzea eragingo lukeela.

Los resultados de la serie temporal que caracterizan la columna de agua indican que el calentamiento del mar en la zona, derivado del cambio climático, estaría produciendo una profundización de la isoterma de 14 °C.



5. ird. 14 °C-ko isotermaren sakontasunaren denbora-seriea D2 estazioan, 1993-2020 aldian.

5. Fig. Serie temporal de la profundidad de la isoterma de 14°C en la estación D2 en el periodo 1993-2020.

Estratifikazioaren urtearteko aldakortasun handia dela-eta, ezin da joera sendorik ezarri aldagai honetarako (González-Pola et al., 2012). Adierazle honek aldakortasuna erakusten du denbora-eskala laburragoetan (barne-uhinak, marea-zikloa, eguneko zikloa), eskuragarri dauden hileroko laginketetan karakterizatuak ez daudenetan.

La estratificación presenta una gran variabilidad interanual por lo que no es posible establecer tendencias consistentes para esta variable (González-Pola et al., 2012). Este indicador presenta variabilidad a escalas de tiempo más cortas (ondas internas, ciclo mareal, ciclo diario) no caracterizadas en los muestreos mensuales disponibles.

		Aldia Periodo	Joera (/hamarkada) Tendencia (/década)	p-balioa p-valor
14 °C-ko isotermaren sakonera Profundidad de la isoterma de 14 °C	(m)	1993–2020	<b>-4,7134 ± 1,9337</b>	<b>0,0154</b>
Estratifikazio termikoa Estratificación térmica	(°C /m)	1993–2020	-0,0038 ± 0,0277	0,8910
Estratifikazio termohalinoa Estratificación termohalina	(kg m <sup>-3</sup> /m)	1993–2020	0,0142 ± 0,0147	0,3322
Neguko nahaste-geruzaren sakonera Profundidad de la capa de mezcla invernal	(m)	1986–2020	-18,6555 ± 9,5040	0,0581

1. taula. Nahaste- eta stratifikazio-geruzen adierazleen joera.

1. Tabla. Tendencia indicadores capa de mezcla y estratificación.

Somavilla et al.-ek (2011) ondorioztatu zuten Atlantikoaren latitude ertainetako stratifikazioa ez litzatekeela handitu beharko berotze globaleko testuinguruan, eskala globaleko ikuspegi orokorra-ekin alderatuta (Steinacher et al., 2010; Bindoff et al., 2019). Azterketa honek ondorioztatu zuen azken hamarkadetan goiko mailetan metatutako beroak negu oso hotzetan -2005 eta 2006 urteetan, esaterako- nahasketa-geruza oso sakonak garatzen lagundu zuela. Alde horretatik, D2 estazioan aztertutako datuek erakusten dute 1986az geroztik neguko nahaste-geruza oso sakoneko (gutxienez 200 m-ko) sei gertakari izan direla, denak azken bi hamarkadetan (2005, 2006, 2009, 2010, 2016 eta 2018). D2 estazioan aztertutako datuek erakusten dutenez, neguko nahaste-geruzaren lodiera handitzen ari da hamarkada bakoitzeko 19 m-ko tasan 1986az geroztik, eredu lineal baterako doikuntza esangura estatistikoaren mugan egon arren. Nabarmendu behar da nahaste-geruzaren lodiera hamarkada bakoitzeko 19 m-ko tasan igotzea baino gehiago erregimen-aldaketa bat gertatu dela. Horrela, bada, neguko nahaste-geruza 58 m sakondu da, batez beste, 2005–2020 aldian, 1986–2004 aldiarekin alderatuta.

